


CENTRO	IES EGA San Adrian		14-2B-10
TITULO	<i>Inauteriak Euskal Herrian</i>	CURSO	2.DBH <b>A eredua</b>
PROFESOR(A)	Gotzone Agirrezabala	ASIGNATURA	Euskara

## Tarea 2

### TEXTO. 2A



## INAUTERIAK EUSKAL HERRIAN

**Inauteriak Euskal Herrian:** Neguko janari erreserbak Aste Santuaren aurreko baraua baino lehen jateko (bereziki haragia eta arrautzak) beharrari lotuta daude.

Inauteriak Asteartean bukatzen dira eta hurrengo egunean hasten da ofizialki baraua. Hainbat lekutan hurrengo larunbata ere erabiltzen da inauterietarako, adibidez Algorta eta Altsasun, eta igandea erabiltzen da Bilboko Santutxu auzoan. Zubietara eta Iturenen urtarileko azkeneko igandearen osteko lehen astelehen eta asteartean izaten dira (Astelehenean Zubietatik Iturenera eta asteartean alderantziz).

### Jatorria

*Inauteri*, *ihauteri* eta *iyote* bezalako ahotsak gehiagotan erabiltzen dira. Inauteri izenak arbolak inauteko garaiarekin,

zerikusia dauka.

Euskal Herrian zaratarekin ere Lurra esnatzeko deia zegoela uste da eta horregatik ereite jai batekin lotu da askotan. Honen adibideak ikusi ahal dira Sakanako inauterietan (Olaztin simaurra botatzen da gurdi batetik, Altsasuko *momtxorroek* goldea erabiltzen dute lurra esnatzeko) eta Ituren eta Zubietako joaldunekin (*zanpantzarrak*), zarata erritmikoan duen garrantzia. Hainbat herritan, batez ere Araban *Porreteroiz*eneko pertsonaia epaitu egiten da, kasu batzuetan putreek jan dezaten eta beste batzuetan errekarra botatzen da.

### Jaiak

Euskal Herrian, esan bezala, Inauteriek tradizio luzea zuten. Hala ere, Hego Euskal Herrian diktadura garaian, jai hauek debekatu eta asko galzorian egon ziren. Nafarroan gehienek jarraipena izan zuten garai hartan *Udaberri ja* moduan.

Gipuzkoan Tolosa (Tolosako inauteriak) eta Donostian dute garrantzi berezia eta biak inauteri hiritarrak dira. Inauterietako denbora arruntaz gain, Ituren eta Zubietako inauteriak diren egunetan (Otsailaren 2a, *Kandelaria*) inude eta artzainen konpartsa ateratzen da Donostian. Antzuolan mantendu da *sorgin dantza* izeneko dantza, inauteri horietan mutilak neskaz mozorrotzen dira.

Zuberoan Maskaradak izaten dira garai honetan. Maskarada bi ataletan banatuta dago; beltza eta gorria. Lehenengoa zikina eta baldarra da.

Bigarrena guztiz ordenatua da eta dantzari finek hartzen dute parte.

FUENTE	
AUTOR	
TÍTULO	Inauteriak Euskal Herrian
EDITORIAL/WEB	<a href="http://eu.wikipedia.org/wiki/Inauteriak_Euskal_Herrian">http://eu.wikipedia.org/wiki/Inauteriak_Euskal_Herrian</a>
AÑO	2009
PÁGINA	
ISBN	
TIPOLOGÍA	
SOPORTE	Inprimatua: papera
FORMATO	Jarraia
TIPO	Narrazioa-deskribapena
USO	Pribatua

### PROCESOS LECTORES

<b>1. RECUPERAR – OBTENER INFORMACIÓN</b>
<b>1.1 Pregunta</b>
Testuaren arabera, non ospatzen dira inauteriak?
<b>1.1 Respuesta</b>
Algortan, Santutxun, Altsasun, Zubietan, Iturenen, Olaztin, Tolosan, Donostian Antzuolan eta Zuberoan....
<b>1.1 OBSERVACIONES</b>
<b>1.2 Pregunta</b>
Zerekin dauka lotura <b>inauteri</b> izenak? Aukeratu esaldi zuzena. a) Neguko janari beharrarekin. b) Arbolak inauteko garaiarekin. c) Aste Santuko jaiekin
<b>1.2 Respuesta</b>
Erantzuna: <b>b</b>
<b>1.2 OBSERVACIONES</b>
<b>2. COMPRESIÓN GLOBAL</b>
<b>2.1 Pregunta</b>
Zertarako idatzi dute testu hau?
<b>2.1 Respuesta</b>
Euskal Herriko Inauterien jaien berri emateko
<b>2.1 OBSERVACIONES</b>
<b>2.2 Pregunta</b>
Testuaren atalak kontuan hartuz, azaldu paragrafo bakoitzean dagoen ideia nagusia.
<b>2.2 Respuesta</b>

<p>1) Inauteriak zer diren eta noiz noiz ospatzen diren.  2) Inauteri hitza nondik datorren  3) Inauterien tradizioa eta non ospatzen diren.</p>
2.2 OBSERVACIONES
Galdera honetan, erantzunetan <b>ZER/NOIZ/NON/ NOLA</b> hartu beharko dute kontuan.
<b>3. INTERPRETACIÓN INFERENCIAS</b>
<b>3.1 Pregunta</b>
Aipatu hurrengo esaldiak <b>EGIA/GEZURRA</b> diren: 1-Inauteriek lotura estua dute Aste Santuarekin. 2-Zuberoako maskaradan lehenengo atalean aberatsek hartzen dute parte. 3-Zubietan mutilak neskaz moxorrotzen dira. 4- Herrialde gehienetan inauteriak astelehenean eta asteartean ospatzen dira. 5-Ituren eta Zubietako herrietan, inauteri jaiak, lehenengo herri batean eta gero bestean ospatzen dituzte.
3.1 Respuesta
<b>Egia:</b> 1, 4, 5 <b>Gezurra:</b> 2,3
3.1 OBSERVACIONES
<b>3.2 Pregunta</b>
Diktadura garaian inauteriak ospatzen ziren? Zure erantzuna arrazoitu.
3.2 Respuesta
Bai. Nafarroan <b>udaberri jai</b> izenekin ospatzen ziren.
3.2 OBSERVACIONES
<b>4. VALORACIÓN – REFLEXIÓN CONTENIDO</b>
<b>4.1 Pregunta</b>
Testuan, egileak Euskal Herriko inauteri jai guztiak aipatzen ditu? Arrazoitu erantzuna.
4.1 Respuesta
Ez. Lantzekoak adibidez ez dira aipatzen. Beste herri txikietakoak ere esan ditzakete
4.1 OBSERVACIONES
<b>4.2 Pregunta</b>
Zein da egilearen ikuspuntua: objektiboa ala subjektiboa? Zure erantzuna arrazoitu.
4.2 Respuesta
Idazlea objektiboa da, hau da, ez digu bere iritzirik ematen gaiari buruz.
4.2 OBSERVACIONES
Nahikoa izango litzateke iritzirik ez dela azaltzen, inauterien azalpena dela esatea.
<b>5. VALORACIÓN – REFLEXIÓN FORMA</b>
<b>5.1 Pregunta</b>

Testuan aditzak orainaldian eta lehenaldian agertzen dira. Zergatik uste duzu horrela egin duela autoreak? Eman adibide batzuk.
<b>5.1 Respuesta</b>
-Tradizioan oinarritzen delako gaur egungo inauteriak azaltzeko -Egon ziren/zuten/
<b>5.1 OBSERVACIONES</b>
<b>5.2 Pregunta</b>
Testuan, <i>inauteri</i> , <i>ihauteri</i> , <i>iyote</i> letra larriz azaltzen dira, zer adierazi nahi du autoreak horrekin?
<b>5.2 Respuesta</b>
Hitz hauek sinonimoak direla, tokietan dituzten izenak direla, euskalkien hitzak direla...
<b>5.2 OBSERVACIONES</b>